

DONOSTIAKO JABETZA ETA ERABILERA PUBLIKOKO LURZORUAK OSTALARITZARAKO NOLA OKUPATU ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2014/04/08/e1403255.htm>

TESTU BATERATUA

OHARRA: Dokumentuak informazio izaera du eta EZ du balio juridikorik

Zioen azalpena.

I. titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

4. artikulua. Baimenen ezaugarriak.

5. artikulua. Definizioak.

II. titulua. Denboraldiak eta ordutegiak.

6. artikulua. Denboraldiak.

7. artikulua. Ordutegiak.

III. titulua. Instalazioen baldintzak.

I. kapitulua. Baldintza orokorrak.

8. artikulua. Terrazen baldintza orokorrak.

II. kapitulua. Parte zaharrerako baldintza bereziak.

9. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

10. artikulua. Hiri espazioaren araberako baldintza bereziak.

III. kapitulua. Hiriko gainerako eremuetarako baldintza bereziak.

I. atala. Mahaiak eta aulkiak dituzten terrazak eta egiturak dituzten esparru zedarriturik gabeko terrazak.

11. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

12. artikulua. Hiri espazioaren araberako baldintza bereziak.

13. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.

II. atala. Egiturak dituzten esparru zedarrituko terrazak.

14. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

15. artikulua. Hiri espazioaren araberako baldintza bereziak.

16. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.

17. artikulua. Terrazen ezaugarri teknikoak.

III. atala. Esparruak dituzten terrazak.

18. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.
19. artikulua. Hiri espazioaren arabera baldintza bereziak.
20. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.
21. artikulua. Esparruen ezaugarri teknikoak.
- IV. titulua. Prozedura.
- I. atala. Baimenak emateko.
22. artikulua. Terrazak ezartzeko baimen eskariak.
23. artikulua. Baimenak ematea.
24. artikulua. Esparru zedarrituko egiturak dituzten terrazak ezartzeko baimena emateko irizpide teknikoak.
25. artikulua. Mahaiak eta aulkiak eta egiturak dituzten esparru zedarriturik gabeko terrazak ezartzeko baimenak emateko baldintzak.
26. artikulua. Egiturak dituzten esparru zedarrituko terrazak ezartzeko baimenak emateko baldintzak.
27. artikulua. Baimenen indarraldia eta baimenak berritzea.
28. artikulua. Baimenak deuseztatzea.
29. artikulua. Baimenak eskualdatzea.
- II. atala. Administrazio emakidak emateko.
30. artikulua. Eskaerak.
31. artikulua. Eskaerak izapidetzea.
32. artikulua. Emateko baldintzak.
33. artikulua. Kokapenei buruzko irizpide teknikoak.
34. artikulua. Kokapenak izapidetzeko onartzea.
35. artikulua. Emateari buruzko irizpide teknikoak.
36. artikulua. Administrazio emakidak ematea.
37. artikulua. Obrak egitea.
38. artikulua. Esparruen indarraldia eta esparruak berritzea.
39. artikulua. Administrazio emakidak deuseztatzea.
40. artikulua. Administrazio emakidak eskualdatzea.
- V. titulua. Betebeharrak.
- I. Kapituluak. Baimenen titularrenak.
41. artikulua. Jarduerari buruzko betebeharrak.
42. artikulua. Betebehar ekonomikoak.
- II. kapituluak. Udalarenak.
43. artikulua. Baimenen titularrekiko betebeharrak.
44. artikulua. Herritarrekiko betebeharrak.
- VI. titulua. Mantentze plana.

45. artikulua. Mantentze eta Berritze Plana.

VII. titulua. Zigor erregimena.

46. artikulua. Ikuskaritza.

47. artikulua. Arau-haustea.

48. artikulua. Kautelazko neurriak.

49. artikulua. Zigor prozedura.

50. artikulua. Mailaketa irizpideak.

51. artikulua. Zigorrak.

VIII. titulua. Baimenak iraungitzea.

52. artikulua. Baimenak iraungitzea.

53. artikulua. Instalazioak desmuntatzea.

Xedapen iragankorrak.

Azken xedapenak.

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honek Donostiako udalerriko erabilera publikoko espazioetako ostalaritza arloko erabilerak arautzen ditu, honako lege hauetan ezarritakoa oinarri hartuta: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia. Ordenantza honen ondorioetarako, Donostiako erabilera publikoko espaziotzat hartu dira, udalaren jabetza eta erabilera publikoko bideak eta espazioak ez ezik, beste administrazio publiko batzuen jabetzakoak edo titulartasun pribatukoak izanik ere herritarren erabilera publikoari loturikoak.

Araudi honen xedea da ostalaritza arloan erabilera publikoko espazioez egin litezkeen erabilerak arautzea, aprobetxamendu berezikoak edo erabilera pribatibokoak diren heinean; eta espazio horien erabilera komunaren babesari eustea, herritar guztiei baitagokie, denei berdin eta bereizketarik gabe. Horrez gain, auzokoen atsedenerako eskubidea zaintzea eta ostalaritzaren sektorea garatzea, bereziki kontuan hartuta herritarren artean zein erro sakonak dituen eta hiriko ekonomian zer-nolako eragina duen.

Hauek dira xedapenaren oinarritzko balioak eta irizpideak:

Lehentasuna ematea erabilera komun orokorrari, oinezkoen joan-etorrietan arreta berezia jarrita; eta, hala, ez mugatzea herritarrei erabilera publikorako espazioetarako sarbidea, horietan erraz, eroso eta segurtasunez ibili ahal izateko moduan.

Zuhaitzak, parterreak, hiri paisaiako landaredia eta hiri altzariak babestea.

Zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea, larrialdiko zerbitzuena bereziki.

Pertsonen ingurumen osasungarria edukitzeko duten eskubidea babestea.

Ordenantza honek, zerbitzu jardueretara oztoporik gabe iristeari buruzko 17/2009 Legea eta merkataritza eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legea aintzat hartuta betiere, zer udal baimen eta administrazio emakida eskatu eta lortu behar diren arautzen du, jabetza eta erabilera publikoko ondasunak erabiltzen direlako eta beharrezkoa delako horietan ongi uztartzea askotariko erabilerak, intentsitateak, mugak eta herritarrek oro har eta jarduera horien bezeroek dituzten interesak.

42/2010 Legea betetzeari begira ostalaritza arloan tabakoaren kontsumoari buruz hartu behar izan diren neurrien eraginez, aldatu egin dira herritarren ohiturak, eta, ohitura aldaketa horiek bultzatuta, azkenaldian nabarmen ugaritu dira bide publikoan terrazak ezartzeko eskariak. Garai batean, esparru iraunkor eta itxiak ezartzeko baimenak eskatu ohi ziren; gaur egun, aldiz, mahaiak eta aulkiak dituzten terrazak ezartzeko baimenak eskatzen dira, batik bat, eta terraza babestuago egon dadin egitura irekiak ezartzekoak.

Bestalde, une honetan, terrazak ezartzeko ohikoa baino denboraldi laburrago bat finkatzeko premia ikusi da; hala, ordenantza honek hiru motatako denboraldiak arautuko ditu: Laburra, luzea eta urte osokoa.

Araudi honetan, arreta berezia emango zaio altzarien eta instalazioen estetikari, baimenak emateko garaian; hain zuzen ere, elementu horien estetikak bat etorri beharko du terraza ezarriko den kalearen edo plazaren estetikarekin.

Ordenantza 8 tituluk osatuta dago; tituluak kapitulutan banatuta daude, eta, orotara, 53 artikulua, hiru xedapen iragankor eta azken xedapen bat biltzen dituzte.

Lehenengo tituluak ordenantzaren xedeari, aplikazio eremuari, baimenei eta administrazio emakidei, eta terrazetan instalatzeko moduluen definizioari buruzko xedapen orokorrak biltzen ditu.

Baimen eta emakida administratibo hauetan, partikularrak ez du terrazak ezartzeko alde aurreko eskubiderik eta Udalak erabakiko baitu baimenak eman edo ez, eta zer muga edo baldintza ezarri, horiek bete ezean baimena bertan behera utzi ahal izateko moduan. Erabaki horiek hartzeko, interes publikoa hartuko da kontuan, segurtasun publikoari, oinezkoen joan-etorriei, atsedenerako eskubideari, eta ingurumenaren edo hiri estetikaren defentsari erreparatuta.

Bigarren tituluak terrazak ezartzeko baimenen denboraldiak eta ordutegiak arautzen ditu, hiri osoa kontuan hartuta.

Hirugarren tituluan hiri osoari begirako baldintza orokorrak, Parte Zaharrean mahaiak eta aulkiak dituzten terrazak ezartzeko baldintza bereziak eta hiriko gainerako eremuetako terrazetarako baimendu ahal izango diren modulu motak eta baldintza bereziak arautu dira.

Laugarren tituluak baimenak eta administrazio emakidak lortzeko, eskualdatzeko eta deuseztatzeko prozedura eta haien indarraldia arautzen ditu.

Bosgarrenean, zehatz-mehatz jaso da beste artikulua batzuetan ezarritakoaren kalterik gabe ostalariek nahiz Udalak nahitaez bete behar dituzten betebeharrak.

Seigarren tituluak instalazioak mantentzeko planaz dihardu, eta terrazen estetikari eta egoera onari eusten zaiola bermatzeko xedea du.

Zazpigarren tituluak kautelazko neurri jakin batzuk biltzen ditu, arau-hauste larrietarako eta oso larrietarako. Eta zigor erregimena ere arautzen du, terrazen arduradunek beren balizko erantzukizunei aurre egiteko eta arau-hausteei urratutako legezkotasuna berriro indarrean ezartzeko.

Zortzigarren tituluak baimenak iraungitzeaz dihardu.

Eta, azkenik, erregimen iragankor bat ezartzen da, ordenantza hau indarrean sartu aurretik baimendutako terrazen instalazioak egokitze, baita azken xedapenak ere, ordenantzaren indarraldiari buruzkoak.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da udalarenak diren jabetza eta erabilera publikoko lurzoruen aprobetxamenduaren erregimen juridikoa arautzea, baita erabilera publikoari lotutako jabetza pribatuko lurzoruen erregimena ere, ostalaritzako jarduerak garatzeari loturik.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Ordenantza udal barrutiko espazio horietan aplikatuko da, izan kale, plaza, etxadien arteko barne patio, atari, oinezkoen espazio libre nahiz gunek berdeak.

2. Terrazak ezartzeko baldintzak, moduluak nahiz elementuak, eta ordutegia arautzen dira. Parte Zaharrerako baldintza bereziak ere finkatzen ditu, eta terrazetarako moduluak zehazten ditu.

3. Ordenantza honen ondorioetarako, terrazek okupatzeko erabilera publikoko espaziotzat hartuko dira izatezko egoeraren, hirigintza plangintzaren eta araudiaren arabera halaxe direnak.

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

Espazioen okupazioa Administrazio Publikoen Ondarearen Legearen eta Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren arabera arautuko da.

4. artikulua. Baimenen ezaugarriak.

1. Espazioak ondorio hauetarako okupatzeko, udalaren baimena eskuratu beharra dago aldez aurretik; terraza desmuntagarriak ezartzeko, baimenak emango dira, eta terraza iraunkorrak ezartzeko, oster, administrazio emakidak.

2. Ostalaritza establezimenduen titularrek baino ezingo dituzte eskatu baimenak, betiere establezimendu horiek hirigintza arauen eta ostalaritza sektoreko arauen araberrako funtzionamendua eta jarduera badute.

3. Dagokien ostalaritzako establezimenduen baimenei lotuak izango dira terrazak ezartzeko baimenak, nahitaez, eta ezingo dira baimen horiek eskualdatu establezimenduen jardueratik bereiz. Ostalaritzako establezimenduaren titulartasuna aldatuz gero, titular berriak terraza ezartzeko espazioa okupatzeko baimena eskatu beharko du, nahitaez.

4. Baimenak interes publikoaren mende egongo dira; hala, baimena onartzeak ez du esan nahi haren titularrak inolako eskubide edo igurikapen zilegirik duenik baimena beste indarraldi baterako berritzeko.

5. Baimenak jabetza eskubidea gordeta eta hirugarrenen kalterik gabe emango dira.

6. Jarduera baimenen titularren gain eta galorde garatuko da.

5. artikulua. Definizioak.

Ordenantza honen ondorioetarako baimen daitezkeen lau terraza eredu zehazten dira eta hiru modulu mota, jarriko diren mahaiekin.

1. Terraza ereduak.

a) 1. eredu. Terrazak.

Mahaia eta aulkiak dituzten terrazatzat hartuko dira ostalaritza jarduera garatzeko okupazioak, mahaia, aulkiak eta eguzkitakoak dituztenak eta egunero jaso eta lokalaren barruan gordeko direnak, bide publikoa guztiz libre uzteko moduan.

b) 2. eredu. Egiturak dituzten esparru zedarriturik gabeko terrazak.

Egiturak dituzten esparru zedarriturik gabeko terrazatzat hartuko dira ostalaritza jarduera garatzeko okupazioak, mahaiak, aulkiak eta eguzkitakoak dituztenak eta bide publikoan utzi beharreko elementuren bat dutenak (eguzkitako handiak, eguzkitakoen euskarriak), neurriagatik egunero jaso eta lokalean gorde ezin dela eta.

c) 3. eredua. Egiturak dituzten espazio zedarrituko terrazak.

Egiturak dituzten esparru zedarrituko terrazatzat hartuko dira ostalaritza jarduera garatzeko okupazioak, bide publikoan instalatutako egitura ireki eta zedarrituak dituztenak, hala nola pantailak, manparak, olanen egiturak, loreontziak.

d) 4. eredua. Barruti itxiak.

Barruti itxiak izango dira ostalaritza jarduera gauzatzeko bide publikoa egitura itxiak jarritz okupatzen denean.

Eredu honetan sartuko dira «terraza ez-inbaditzaileak», alegia, bizitegi eraikinetako fatxaden aurrealdetik 15 metro baino gehiagotara daudenak.

2. Mahaiak.

a) Mahai altutzat hartuko dira 0,9 arteko altuera dutenak.

b) Mahai baxutzat hartuko dira 0,9 eta 1,20 m bitarteko altuera dutenak.

3. Moduluak.

Moduluak dira mahaiak eta aulkiek osaturiko multzoa.

a) 1. moduluak: Gehienez 70 cm-ko diametroko mahai borobil altuak edo baxuak eta lau aulkik osatua, 3 m² okupatzen duena.

b) 2. moduluak: Mahai karratu altuak edo baxuak, 70 cm-ko aldearekin, gehienez, eta lau aulkik osatua, 4 m² okupatzen duena.

c) 3. moduluak: Mahai karratu edo borobilak, altu edo baxuak, 70 cm-ko diametro edo aldearekin, eta bi aulkik osatua, 2m² okupatzen duena.

II. TITULUA

INSTALAZIOEN DENBORALDIAK ETA ORDUTEGIAK

6. artikulua. Denboraldiak.

1. Hiru denboraldi bereiziko dira terraza desmuntagarriak ezartzeko baimenak emateko.

a) Denboraldi laburra: Ekainaren 1etik irailaren 30era.

b) Denboraldi luzea: Aste Santutik urriaren 31ra.

c) Urte osoko denboraldia; baimendutako aldi bakoitzeko urte naturalarekin batera amaituko da.

7. artikulua. Ordutegiak.

1. Terrazak irekitzeko eta bezeroek terrazak erabiltzeko ordutegia 09:00etan hasiko da (Parte Zaharrerako muga jakin batzuk daude).

2. Honako hau izango da terrazaren jarduera amaitzeko eta terrazak jasotzeko ordutegia:

a) Aste Santutik urriaren 31ra 01:00etan, igandetik ostegunera, eta 02:00etan ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

b) Urteko gainerako hilabeteetan, 23:00ean, igandetik ostegunera, eta 0:30ean, ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

c) Aste Nagusian, ordubete atzeratuko da terrazak ixteko ordua.

d) Arkupeetako terrazak jasotzeko ordutegia hau izango da:

— Aste Santutik urriaren 31ra, 01:00etan, igandetik ostegunera, eta 02:00etan ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

— Urteko gainerako hilabeteetan, 23:00ean, igandetik ostegunera, eta 0:30ean, ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

e) Adierazitako ordutegi horretan, ez dago sartuta terrazako altzariak muntatzeko eta desmuntatzeko beharrezko denbora; lan horiek egiteko 30 minutuko tarteak har daiteke, terrazaren ordutegia amaitu ondoren.

3. 5,20 m-tik beherako zabalera duten Parte Zaharreko kaleetan, honako hau izango da terrazak ixteko eta jasotzeko ordutegia: 22:30ean lanegunetan, eta 24:00etan ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

Jarduera amaitzeko eta terraza «ez-inbaditzaileak» eta «egiturak dituzten esparru zedarrituko terrazak» kentzeko ordutegia lokala ixteko ordutegi bera izango da, 1. Taldekoentzat izan ezik.

4. Egun jakin batzuetan ordutegia luzatzeko baimena eman ahal izango da, baita banakako muga edomuga orokorrak ezarri ere, terraza dagoen inguruan bizikidetzak asaldatzen duen egoera bereziren bat gertatuz gero.

5. Inola ere ezingo da terraza ezarrita eduki ostalaritzako establezimenduetarako onartutako ordutegitik kanpo.

III. TITULUA

INSTALAZIO BALDINTZENA.

I. KAPITULUA.- BALDINTZA OROKORRAK.

8. artikulua. Terrazen baldintza orokorrak.

1. Ez da baimenik emango ezaugarri fisiko bereziak edo oinezkoen joan-etorrien intentsitatea direla-eta pertsonen segurtasun, mugikortasun eta irisgarritasunerako desegokiak izan daitezkeen tokietan terrazak ezartzeko.

2. Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola olanak eta erlatizak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

3. Oro har, ostalaritza establezimenduaren ikuspen angeluan egongo da terraza osoaren kokapena, gehienez ere 25 m-ko distantzian, segurtasun arrazoiengatik hura jartzea gomendagarria ez denean izan ezik.

* 2015eko uztailaren 30eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 8.3. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2015/08/07/e1507384.htm>

4. Elkarren alboz alboko establezimenduetan terrazak ezartzekotan, lerrokatuta ezarri beharko dira, oinezkoen joan-etorriak zuzenak izan daitezen eta sigi-sagan ibili beharrik izan ez dezaten.

5. Denboraldi laburrerako edo luzerako baimenak dituzten establezimenduek terrazako elementu guztiak bide publikotik kendu beharko dituzte baimenaren indarraldia amaitutakoan.

6. Egitura duten terrazek martxan egon beharko dute, baimenak irauten duen bitartean. Terrazen egiturek ezin izango dute bide publikoan egon zerbitzurik eman gabe, 15 egunetik gorako aldi batez.

7. Toki falta dela-eta terrazako altzariak lokalaren barruan gordetzerik ez duten establezimenduek baimena eskatu beharko dute horiek bide publikoan biltzeko; planoan adieraziko zaie non utzi behar dituzten. Tasaren zenbatekoa dagokion zerga ordenantzaren arabera erabakiko da.

8. Ordenantzan ezarritako irizpide eta xedapen teknikoak betez gero, ordenantza honetan arautu gabeko baldintzak eta ezaugarriak dituzten espazioak okupatzeko eskariak ere ebatzi ahal izango dira.

9. Terrazak zerbitzatzeko erabiltzen diren leihoak itxita egon beharko dira 23:00etatik aurrera. Hala ere, musika ekipoa edukitzeko baimena duten establezimenduek, terraza jartzeko baimena izanez gero, ezin izango dute ekipoa erabili terrazako mahaiak eta aulkiak jarrita dauden bitartean, eta jarduteko ordutegian musika ekipoa erabiliz gero, barra-leihoa itxita egon beharko da. Leihoak jarduerari eskatutako gutxieneko isolamendu akustikoa ziurtatu beharko du.

II. KAPITULUA. -PARTE ZAHARRERAKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

9. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

1. Mahai altuak ezartzeko okupazioak baimendu ahal izango dira; mahai horiek lokalaren fatxadan bertan ezarriko dira, atarietatik 0,6 m-ko tarte utzita, gutxienez.

2. Zamaletarako finkatutako ordutegia amaitu arte ezingo da terrazarik ezarri, 2 mahai ilara izan ezik, Boulevardeko 18. eta 26. zenbakien arteko terrazetan, Bretxakoetan eta Ijenteakoetan.

3. Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola olanak eta erlaitzak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

10. artikulua. Hiri espazioaren araberako baldintza bereziak.

1. Oinezkoen kaleak:

a) 5 m-tik gorako zabalera duten kaleetan, mahai altuak ezarri ahal izango dira, eta mahai bakoitzeko bina aulki, kalearen alde bietan eta lokalaren fatxadaren aurrealdeak hartzen duen luzera guztian.

b) Merkataritza edo ostalaritza establezimenduak kalearen alde bakarrean dituzten kaleetan, saltokirik ez dagoen aldean mahai baxuak ezartzeko baimena eman ahal izango da.

c) Parte Zaharreko gainerako kaleetan, ostalaritzako establezimenduek 2 mahai altu ezarri ahal izango dituzte; mahai altu horiek fatxadan bertan ezarri behar dira, aulkirik gabe, establezimenduaren sarreretan.

2. Konstituzio plaza.

4 mahai ilarako terrazak ezarri ahal izango dira, gehienez ere 8 m-ko hondoa hartuta, ipar, hegoa, ekialdeko fatxadan.

3. Konstituzio Plazako eta Boulevardeko atarietan, arkupeetan edo zutabeen artean ezingo da ezarri inolako mahairik (ez mahai osagarririk, ez mahai alturik), ezta bestelako altzari osagarririk ere; espazio horiek oinezkoen joan-etorrietarako guztiz libre utzi behar dira.

4. Gainerako plazetako terrazak (Zuloaga, Bretxa, Sarriegi, Valle Lertsundi, Trinitate plaza, Lasala plaza, Esterlines plazatxoa eta Santa Maria elizaren atari pareko oinezkoen gunea, Kale Nagusiaren eta abuztuaren 31 kalearen arteko kantoikoa) eta oinezkoentzako beste espazio batzuk (adibidez, Boulevard) hiriko gainerako eremuetarako baldintza orokorren arabera arautuko dira.

III. KAPITULUA. -HIRIKO GAINERAKO EREMUETARAKO BALDINTZA BEREZIAK

I. ATALA. MAHAIK ETA AULKIAK DITUZTEN TERRAZAK ETA EGITURAK DITUZTEN ESPARRU ZEDARRITURIK GABEKO TERRAZAK

11. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

1. Erabilera publikoko espazioetan terrazak ezartzeko baldintza izango da okupazioak ez eragozteko oinezkoen joan-etorriak, ezta espazio horri atxikitako beste erabilera batzuk ere, mugikortasun mugatua eta ezintasuna duten pertsonak kontuan hartuta, betiere.

2. Oro har, terrazak establezimenduaren fatxadaren aurrean jarriko dira, eta baimena eman ahal izango da terrazak, luzean, lokalaren fatxadaren aurrealde osoa hartzeko, baldin eta horrek ez badie kalterik eragiten espazio hori mahaiekin eta aulkiekin okupa lezaketene beste establezimendu batzuei eta baldin eta terraza fatxadatik bereizita badago.

Terrazak beste saltoki baten aurrealdea hartuz gero, ezingo da eguzkitakorik ezarri, saltokiko erakusleihoak ez estaltzeko.

3. Terrazako elementuek ezingo dute gaintitu terrazarako baimendutako eremuaren proiektio bertikala, ez zoruan, ez altueran.

4. Alboz alboko bi establezimenduk terrazak edukiz gero, 1 m-ko tartea utzi beharko da bi terrazen artean.

5. Terrazetan edo horien alboan ezingo da gorde edo pilatu bestelako produktu edo materialik (kuboak, orgak, plataformak, itzalkinen oinarriak, etab.), ezta instalazioetako hondakinak ere, arrazoi estetikoak eta higienikoak direla eta.

6. Ez da honako hauetan terrazak ezartzeko baimenik emango: Galtzadan edo iraunkorki aparkatzeko edo antzeko beste erabilera batzuetarako finkatutako espazioetan, larrialdiko irteeren aurrean, pasabideen aurrean, zabor edukiontzien aurrean, ezinduentzako aparkalekuen aurrean, autobus geltokien aurrean edo aldamioren azpian edo alboan.

7. Arkupeetan mahaiak eta aulkia dituzten terrazak ezartzeko baimenak emateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Fatxadaren hurbileneko gunea oinezkoentzako libre uztea; 2 m-ko tartea, gutxienez.

b) Okupazioak ez gaintitzea arkupeen barnealdeko zabaleraren % 50.

8. Eserleku publikoen aurrean 1 m-ko tartea uztea, gutxienez.

9. Baimendutako okupazioaren azalera plano batean zehaztu eta finkatuko da; planoan adieraziko dira terrazako mahaien eta aulkien kokalekua, mahai eta aulki kopurua eta modulu mota, baita oinezkoen joan-etorrietarako libre utzi beharreko pasabideak ere.

10. Aste Nagusian, San Sebastian egunean eta abarretan antolatutako jaialdi, kontzertu eta bestelako ekitaldi ludikoak eta era horretako beste ekimen kultural batzuk direla eta, beharrezko irizten zaion ordutegian terraza kentzeko agindu ahal izango da.

11. Obren edo aldarmioak ezarri behar izanaren ondoriozko aldi baterako egoera berezietan, egoera hori eragin duen arrazoiak iraun bitartean baimena bertan behera utzi ahal izango da, baldin eta instalazioa beste kokaleku batera aldatzerik ez badago.

12. Jendetza handiak erakartzen dituzten ekitaldiak direla eta –su artifizialak, kontzertuak, kirol ekitaldiak eta gisa horretako emanaldiak–, oinezkoen joan-etorritako traba larria izan litezkeen terrazak kentzeko agindua eman ahal izango da, dagokion teknikari arduradunak idatziz adierazitako irizpide oinarrituaren arabera.

12. artikulua. Hiri espazioaren araberrako baldintza bereziak.

1. Kaleak espaloiekin:

a) Kontuan hartuko dira oinezkoen joan-etorrietarako pasabideak, joan-etorrien intentsitatea eta espaloien ezaugarriak (hiri altzaririk badagoen, txorkoak dauden).

b) Terraza ezartzeko baimena emateko, 3 m-tik gorako zabalera izan behar du espaloiak. Okupazioak ezin du gainditu espaloien zabalerraren % 50.

3 m-tik beherako zabalera duten espaloietan, berriz, baldin eta txorkorik badago, bina aulki duten mahaia ezartzeko baimena eman ahal izango da, txorkoen arteko espazioa aprobetxatzeko.

Egitura duten terrazak ezartzeko baimena emateko, espaloiak 6 m-ko zabalera izan beharko du, gutxienez.

c) Terraza zintarriaren alboan ezarri behar da fatxadatik hurbileneko eremua oinezkoentzat libre utzita (2 m-ko pasabidea, gutxienez).

d) Txorko ilarak edo hiri altzariak dituzten espaloietan edo etorbideetan, horiekin lerrokatuta egon beharko du terrazak.

e) Terrazak ezin har ditzake oinezkoen pasabide baten bi aldeak aldi berean.

f) Arau orokor gisa, ez da okupaziorik onartuko ibilgailuak igarotzen diren bide baten beste aldean.

2. Oinezkoen kaleak:

a) Txorko ilarak edo hiri altzariak dituzten oinezkoen kaleetan, horiekin lerrokatuta egon behar du terrazak.

b) Arau orokor gisa, okupazioek 3 m-ko gutxienerako pasabide bat utzi behar dute libre –salbuespen gisa, 2,5 m-ko tarte–, larrialdiko ibilgailuak igarotzeko eta garaje partikularretako sartu-irtenetarako.

c) Terrazak egiturarik badu, elementu iraunkorrek 3 m-ko gutxienerako tarte utzi beharko dute libre, larrialdiko ibilgailuak igarotzeko, garaje partikularretako sartu-irtenetarako, etab.

d) Edonola ere, okupazioak ez du gaindituko kalearen zabalerraren % 60.

e) Ezingo da terrazarik ezarri zamaletarako ordutegia amaitu arte.

3. Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk:

Okupatzeko espazioaren banaketa finkatzean, espazio horiek esleitua duten erabilera eta baimenaren xede den ostalaritzako jardueraren garapena bermatuko dira, kontuan hartuta plaza bakoitzeko oinezkoen pasabideak, azalera eta bestelako berezitasunak.

13. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.

Modulu motak eta modulu mota bakoitza ezartzeko espaloiak izan behar dituen gutxienek neurriak.

1. Terrazen ereduzko modulua honako hauek osatua da: Mahai bat eta haren aulkiak. Ordenantza honen eranskin grafikoan adierazita daude.

2. Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira, eta kolore neutroak. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko plastikozko altzariak. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zaratak arintzeko eta bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko. Aise pilatzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.

3. Eguzkitakoek oihalezkoak, marrazkirik gabeak eta kolore bakarrekoak izan behar dute. Ezingo dira kolore deigarriak erabili, eta suaren aurkako erreakzioa m² motakoa izango dute. Eguzkitakoek ezingo dute gaintitu terrazaren hedadura, oinplanoko proiektzioan, ezta inolako itxitura bertikalik eduki ere. 2,20 m-ko altuera utzi behar dute libre, gutxienez. Euskarri finkorik gabe eta zoruari lotu gabe ezarri behar dira, aise garraiatzeko moduko kontrapisuetan bermatuta.

Egitura duten terrazei dagokienez, eguzkitakoak kalean utzi ahal izango dira, egunero establezimenduaren barrura jaso beharrik izan gabe.

4. Babesgarri gisa, honako elementu hauek baimendu ahal izango dira: Zoruari lotu gabe ezarritako loreontzien edo manpara mugigarrien lerro bat, terrazak okupatutako espazioaren luzeran, baldin eta ibilgailuen zirkulazioa (bizikletena barne) espaloia zintarriaren albotik igarotzen bada. Gehienez ere 0,30 m-ko zabalera izango dute eta 1 eta 1,20 m arteko altuera. Albo babesgarriak jarri ahal izango dira, baimendutako espazioa zedarritzeko, baldin eta ez badakarte handik igarotzen direnentzako arriskurik, ezta bide publikoaren kalte edo gorabeherarik ere.

5. Berogailu elektriko homologatuak jarri ahal izango dira, olana edo estalkien azpian. Ezingo dira bide publikoan utzi establezimendua itxita dagoenean.

6. Terrazaren alboetan manparak ezarri ahal izango dira, haizetik babesteko, baina egunero desmuntatu eta establezimenduaren barruan gorde beharko dira. Zoruari lotu gabe ezarriko dira, eta 1,20 eta 1,60 m bitarteko altuera izan behar dute.

7. Instalazioek publizitatea izan dezakete, testu modukoa, logotiporik edo ikurrik gabea eta 10 x 20 cm-koa, gehienez ere. Itzalkinen hegaletan publizitatea ager daiteke. Manparek eta babesgarriek neurri bereko publizitatea izan dezakete: 10 x 20 cm, alde bakoitzean.».

8. Debekatuta dago baimendutako espazioan edari eta izozkietarako hozkailuak, litxarreriak, jolasak edo opariak edukitzea edo irrati, telebista nahiz musika sortzeko inolako elementurik ezartzea. Informaziorako arbel modulu bat ezarri ahal izango da baimendutako perimetroaren barruan.

Zuzeneko musika emanaldiak egin ahal izango dira, alde zuzenetik eskaria egin eta horretarako berariazko baimena jasoz gero; baimenean adieraziko dira ordutegia, soinu emisioaren gehieneko maila eta egoki irizten zaien gainerako xehetasun guztiak.

9. Establezimenduaren titularra behartuta dago eguneko ordutegia amaitutakoan altzarien elementuak establezimenduaren barruan gordetzeko, baimenean besterik adierazten ez bada.

10. Baimenaren indarraldia amaitutakoan, kendu egin beharko dira terraza zirkulaziotik babesteko baimendutako elementu guztiak.

II. ATALA. EGITURAK DITUZTEN ESPARRU ZEDARRITUKO TERRAZAK

14. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

1. Egituren bidez zedarritutako terrazak establezimenduaren beraren fatxadaren aurrean ezarriko dira, eta baimena eman ahal izango da terrazak, luzean, lokalaren fatxadaren %100 gehiago hartzeko, baldin eta ez badu hartzen beste saltoki baten aurrealdea.

2. Ez da baimenik emango honako hauetan era honetako terrazak ezartzeko: Portxe edo ataripekoetan galtzadan edo iraunkorki aparkatzeko edo antzeko beste erabilera batzuetarako finkatutako espazioetan, larrialdiko irteeren aurrean, pasabideen aurrean, zabor edukiontzien aurrean, ezinduentzako aparkalekuen aurrean, autobus geltokien aurrean.

4. Alboz alboko bi establezimenduk terraza edukiz gero, 2 m-ko tarte libre utzi beharko da terrazen artean.

5. Udalak kokaleku plano batean zehaztu eta finkatuko du okupazioa. Planoan honakoak jasoko dira: Zedarritutako terrazak zein azalera okupatu ahal duen, mahaiak, mahai altu edo baxuen kopurua eta modulu mota, aulkiak, baimendutako elementuak eta non gordetzen diren eta oinezkoen joan-etorrietarako libre utzi beharreko pasabideak.

6. Terrazetan edo horien alboan ezingo da gorde edo pilatu bestelako produktu edo materialik (kuboak, orgak, plataformak, itzalkinen oinarriak, etab.), ezta instalazioetako hondakinak ere, arrazoi estetikoak eta higienikoak direla eta.

15. artikulua. Hiri espazioaren araberako baldintza bereziak.

1. Kaleak espaloiekin:

a) Kontuan hartuko dira oinezkoen joan-etorrietarako pasabideak, joan-etorrien intentsitatea eta espaloiaaren ezaugarriak (hiri altzaririk badagoen, txorkoak dauden).

b) Terraza zedarrituak ezartzeko baimena emateko, 6 m-ko edo hortik gorako zabalera izan behar du espaloiak. Edonola ere, okupazioak ez du gaindituko kalearen zabalaren % 50.

c) Terraza zintarriaren alboan ezarri behar da, fatxadatik hurbileneko eremua oinezkoentzat libre utzita 2 m-ko tartean, gutxienez.

d) Arau orokor gisa, ez da okupaziorik onartuko ibilgailuak igarotzen diren bide baten beste aldean.

2. Oinezkoen kaleak:

a) 3 m-ko gutxienezko pasabide bat utzi behar da libre, larrialdietako ibilgailuak eta zamaletakoak igarotzeko.

b) Edonola ere, okupazioak ez du gaindituko kalearen zabalaren %40.

3. Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk:

Okupatzeko espazioaren banaketa finkatzean, espazio horiek esleitua duten erabilera eta baimenaren xede den ostalaritzako jardueraren garapena bermatuko dira, kontuan hartuta plaza bakoitzeko oinezkoen pasabideak, azalera eta bestelako berezitasunak.

16. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.

1. Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira, eta kolore neutroak. Inola ere ezingo dira erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko plastikozko altzariak.

2. Estalki edo olanaren azpian berogailu elektriko homologatuak baimendu ahalko dira. Egiturari lotuta ez dauden berogailuak ezin izango dira bide publikoan utzi, establezimendua itxita dagoenean.

Berogailu sistemaren bat badago, hautsezko itzalgailu polibalente bat (ABC motakoa, 21A-113B eraginkortasuna duena) izan beharko da, 15 m baino gutxiagora, erraz iristeko leku batean.

3. Oro har, baimen edo establezimendu berari dagozkion elementu guztiek kolore, diseinu eta uki bereko materialez eginak izan behar dute. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zaratak arintzeko eta bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko.

4. Altzari osagarriak ezarri ahal izango dira mahai-tresnak, baxera, etab. gordetzeko.

5. Debekatuta dago baimendutako espazioan edari eta izarzietarako hozkailuak, litxarrerriak, jolasak edo opariak edukitzea edo irati, telebista nahiz musika sortzeko inolako elementurik ezartzea. Informaziorako arbel modulu bat ezarri ahal izango da baimendutako perimetroaren barruan.

6. Establezimendua itxita dagoenean, terraza zedarrituaren barruan gorde ahal izango dira elementu guztiak, egiturari lotu gabeko berogailuak izan ezik.

17. artikulua. Terrazen ezaugarri teknikoak.

1. Okupatutako espazioa manparen edo loreontzien bidez zedarrituko da; gehienez ere 1,60 m-ko altuera eta 0,30 m-ko zabalera izango dute elementu horiek.

2. Manparek beira gardenekoa izan behar dute altueraren %50, gutxienez. Okupaziorako baimendutako espazioa hiru aldetatik zedarritu ahal izango da. Laugarren aldeak, berriz, irekita eduki behar du luzeraren % 50, gutxienez, eta, gomendagarria izanez gero, instalazioa gauez ixteko sistemak jartzea ahalbidetuko du, bandalismoa eta espazioaren erabilera okerra saihesteko.

3. Itzalkinak edo olanak bilgarriak izango dira, eta kolore neutroetakoak; ezin da erabili kolore bizirik. Eguzkitakoek ezingo dute gainditu esparruaren hedadura, oinplanoko proiektzioan, ezta inolako itxitura bertikalik eduki ere. 2,20 m-ko altuera utzi behar dute libre, gutxienez. Euskarri finkorik gabe eta zoruari lotu gabe ezarri behar dira, kontrapisuetan bermatuta.

4. Ezin zaio terrazako inolako elementurik zoruari lotu.

5. Mugatutako terrazaren gutxieneko zabalera 3m-koa izango da eta fatxadaren aurrealdearen %100ean luzatu ahal izango da, 15 metrora arte gehienez ere.

Okupazioaren azalera guztia ez da izango 100m karratu baino gehiagokoa. Ezingo du beste lokal komertzial batean aurrealdea hartu.

* 2015eko uztailaren 30eko Udalbatzako akordioaren ondorioz, 17.5. artikulua edukia aldatu da.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2015/08/07/e1507384.htm>

6. Terrazako elementuek ezingo dute gainditu terrazarako baimendutako eremuaren proiektzio bertikala, ez zoruan, ez altueran.

7. Berogailuak ezarri ahal izango dira, ahal izanez gero, elektrikoak eta egiturari atxikita; argiak ere instalatu daitezke. Hartune elektrikoa lurpeko kanalizazioaren bidez egin behar da, eta, horretarako, dagokion udal baimena izapidetu eta Industria Ordezkaritzak onetsi beharko du.

8. Terrazako inongo elementutan ezin da publizitaterik ezarri, ostalaritzako establezimenduaren izena izan ezik.

9. Terrazaren egituraren ezin da itsatsi edo finkatu menuiei, eskaintzei eta abarri buruzko iragarki edo publizitaterik, terrazak itxura txukuna eta duina izan dezan.

III. ATALA. ESPARRU ITXIAK DITUZTEN TERRAZAK.

18. artikulua. Espazioa okupatzeko baldintza orokorrak.

1. Esparru itxiak establezimenduko fatxadaren aurrean jarriko dira, eta haien luzera lokalaren fatxadaren aurrealdeak hartzen duen tartearen % 100 handiagoa baimendu ahal izango da, baldin eta beste saltoki baten aurrealdea hartzen ez badu.

2. Ez da baimenik emango honako hauetan esparruak ezartzeko: Eraikinetako karrerape edo ataripeen barrualdean, galtzadan edo iraunkorki aparkatzeko edo antzeko beste erabilera batzuetarako finkatutako espazioetan, larrialdiko irteeren aurrean, pasabideen aurrean, zabor edukiontzien aurrean, ezinduentzako aparkalekuen aurrean, autobus geltokien aurrean.

3. Kasu guztietan, Udalak okupazioa finkatu eta zehaztuko du, kokaleku plano baten bidez. Planoan, esparru itxiak, ondo mugatuta, okupa dezakeen azalera eta oinezkoak igartzeko libre utzi behar diren lekuak zehaztuko dira.

4. Zenbait kasutan, hainbat arrazoi direla eta, hala nola eraikin katalogatuak eta segurtasun neurri aldetik interes berezikoak direnak aintzat hartzea eta oinezkoen joan-etorria joria izatea espazio jakin batzuetan (merkatu guneak, zinema aretoak, irakaskuntza edo osasun ekipamenduak eta jendea ibiltzen den bestelako establezimenduak), tratamendu berezia izango dute, oinezkoen segurtasuna eta joan-etorri joria bermatzeko.

5. Eskaera izapidetzeko onartzeko, Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuaren aldeko txostena beharko da.

19. artikulua. Hiri espazioaren arabeko baldintza bereziak.

1. Kaleak espaloiekin:

a) Kontuan hartu beharko da zenbat oinezko igarotzen diren eta espaloiak zer ezaugarri dituen (altzariak, txorkoak eta abar).

b) Esparru itxiak ezartzeko baimena emateko, 7 m-tik gorako zabalera izan behar du espaloiak. Edonola ere, ez du gaindituko espaloiaaren zabaleraren % 50.

c) Zintarriaren alboan ezarri behar da, zintarritik 0,50 m-ko gutxieneko tartea utzita, eta fatxadatik hurbileneko eremua oinezkoentzako libre utzita (3 m-ko pasabidea, gutxienez).

d) Arau orokor gisa, ez da okupaziorik onartuko ibilgailuak igarotzen diren bide baten beste aldean, oso trafiko urria egonez gero.

2. Oinezkoen kaleak:

Gutxienez 4 m-ko igarobidea utzi beharko da larrialdiko ibilgailuak, zamalanetakoak, igartzeko.

3. Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk:

Okupa daitekeen espazioaren banaketa finkatzean, espazio horiek esleitu duten erabilera bermatuko da, kontuan hartuta plaza bakoitzeko oinezkoen pasabideak, azalera eta bestelako berezitasunak.

20. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarriak.

1. Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko plastikozko altzariak.

2. Berogailuek homologatuta egon beharko dute.

3. Oro har, baimen edo establezimendu berari dagozkion elementu guztiek kolore, diseinu eta uki bereko materialez eginak izan behar dute. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zaratak arintzeko eta bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko.

4. Altzari osagarriak ezarri ahal izango dira, (mahai tresnak, baxera eta abar gordetzeko).

5. Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola olanak eta erlaitzak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

6. Esparruaren barruan ezingo da ezarri baimendu gabeko elementu, altzari edo makineriarik, hala nola edari eta izozki hozkailurik nahiz litxarrerriak, jolasak, opariak eta bestelakoak gordetzekorik, ez eta soinua ekoizteko bestelako elementurik ere, izan irratia, telebista, musika hari edo ekipamendua. Informaziorako elementu edo arbel bat ezarri ahal izango da baimendutako perimetroaren barruan.

21. artikulua. Esparruen ezaugarri teknikoak.

1. Esparru itxiak beren perimetroan itxita dauden egitura kubiko estalkidunak dira.

2. Hormek beira gardenekoa izan behar dute altueraren %50, gutxienez Lau aldeetatik ireki ahal izango dira, erabat edo zati bat, bai horizontalean eta bai bertikalean. Ezingo da olanarik erabili esparruaren itxitura bertikalean.

3. Estalkia finkoa edo barneragarria izan daiteke.

4. Ezin zaio esparruko inolako elementurik zoruari lotu.

5. Esparruak 3,5 m-ko zabalera izango du, gutxienez, eta, luzerari dagokionez, fatxadaren aurrealdearen %100ean handitu ahalko da gehienez. Okupazioaren azalera osoak ezin du gainditu 50 m²-ko azalera. Ezin du beste saltoki baten aurrealdea hartu.

6. Berogailuak ezarri ahal izango dira, elektrikoak, ahal izanez gero; argiak ere instala daitezke. Argindarraren hartunea lur azpitik egin behar da, eta horretarako dagokion udal lizentzia tramitatu beharko da.

7. Irisgarritasunaren Legea bete beharko da.

8. Esparrua ezingo da ezarri zerbitzu edo instalazio publikoen erregistro edo kutxeten gainean.

9. Esparruko inongo elementutan ezin da publizitaterik ezarri, ostalaritzako establezimenduaren izena izan ezik.

10. Esparruaren egituran ezin da itsatsi edo finkatu menuei, eskaintzei eta abarri buruzko iragarki edo publizitaterik, terrazak itxura txukuna eta duina izan dezan.

11. Esparruaren estetikak bat etorri behar du ingurunearekin.

IV. TITULUA

I. ATALA. BAIMENAK EMATEKO PROZEDURAK

22. artikulua. Baimen eskariak.

1. Mahaiak eta aulkiak dituzten terrazak eta eremu zedarrituko edo zedarritu gabeko egiturak dituzten terrazak jartzeko eskariak inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztuko dira, udal erregistroetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 38.4 artikuluan jasotakoetan. Honako informazio hau emango da: Ostalaritza establezimenduaren baimena duen titularraren identifikazio osoa, terraza eredua, jarri beharreko mahai kopurua eta «modulu mota», materiala eta kolorea, okupazio denboraldia, jarri nahi diren elementuak (hala nola itzalkinak, loreontziak, menuen karta), okupatu beharreko azalera, eta okupatu beharreko eremuaren kokalekua.

2. Okupatu beharreko azaleraren eskalako plano bat edo krokis bat erantsiko da, bai eta kale edo espazioaren tartearena ere. Egitura duten terrazetan, proiektu tekniko bat aurkeztuko da, eskala planoak eta oinplanoaren eta altxaeraren xehetasunak eta gutxienez 3 m-ko altueraraino terrazaren luzera osoa hartzen duten kalearen sekzioak jasoko dituen; horrez gain, aurkeztuko dira jabetzaren egiaztagiria eta eraginpeko komunitatearen jabeen batzarrak emandako baimenaren akta, titulartasun pribatuko eta erabilera publikoko eremua okupatzen bada.

3. Egitura duten terrazak jartzeko eskariekin batera, jarri beharreko egituraren euskarri, tamaina eta material zehatzen memoria erantsiko da.

4. Edozein terraza motako elementuak aldatzeko, gehitzeko edo kentzeko, eskaria egin beharko da, eta dagokion baimena jaso.

23. artikulua. Baimenak ematea.

1. Prozedura eskariak aurkeztean hasiko da.

2. Baimena emateko izapideak egingo dira.

Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuari txostena eskatuko zaio, egitura duten terrazen eskaeren izapideak onartzeko.

Hala behar izanez gero, araudi aplikagarriara egokitzeko okupazioak bete behar dituen neurri zuzentzaileen, eskakizunen edo nahitaezko dokumentazioaren gabezia zuzentzea eskatuko da, eta adieraziko da horrela egin ezean eskariari uko egin zaiola ebatziko dela eta, eskaera osorik bete ezean, baimena ukatu egingo dela.

3. Bide publikoaren okupazioaren berri ematen duten teknikariek eskariak eta emandako dokumentazioa aztertuko dituzte, eta honako hau proposatuko dute:

a) Mahaiak eta aulkiak dituzten terrazetan, eman beharreko ebazpenaren zentzua eta baldintzak.

b) Egitura duten terrazetan, eskaera izapidetzea onartzen den ala ez, eta eman beharreko ebazpenaren zentzua eta baldintzak.

4. Egindako proposamen teknikoaren arabera, baimena ukatzeari edo emateari buruzko berriazko ebazpena emango da.

5. Baimena emateari buruzko ebazpenak okupazioaren baldintzak, betebeharrak eta mugak zehaztuko ditu. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrekin batera plano bat, non zehaztuko baitira baimendutako azaleraren kokalekua, oinezkoentzat libre utzi beharreko lekuak eta okupazio bakoitzak Ordenantza honetan bete beharreko gainerako baldintzak.

6. Irizpide zehatzak eman ahal izango dira eremu jakin batzuetan baimenak emateko, segurtasun neurriak eta oinezkoen joan-etorriaren jarria direla-eta (hala nola azokak, zinema irteerak, ikastetxeak edo osasun ekipamenduak, edo jendearen joan-etorria duten beste batzuk) babes berezia merezi badute, eraikina ebakutzean kanpoko espazio segurua arriskuan jar badaiteke edo saturazioa dela-eta antolamendu berezia behar badute, honako muga hauekin:

- a) Baimendu beharreko terrazan gehieneko azalera, kokalekua eta gehieneko azalera zehaztea, eta horien banaketa egitea establezimenduen artean.
- b) Bete beharreko ezaugarri teknikoak, estetikoak edo bestelakoak zehaztea.
- c) Terrazak egiteko erabil daitezkeen elementu motak mugatzea.
- d) Altzariak mota normalizatu batera edo batzuetara mugatzea.
- e) Baimenak emateko prozedura bereziak finkatzea, lizitazio prozeduren bidez edo nahitaezko txostenen igorpenaren bidez.

24. artikulua. Esparru zedarrituko egiturak dituzten terrazak ezartzeko baimena emateko irizpide teknikoak.

Baimenak ukatzeko edo onartzeko proposamenetan honako irizpide tekniko hauek erabiliko dira:

- 1. Instalazioak guztiz desmuntagarriak izatearen irizpen teknikoa.
- 2. Zoruari eusteko modua eremuaren, bide motaren eta gainerako ezaugarri teknikoen arabera izatea, kontuan hartuta jarri beharreko egitura euskarririk gabe atxiki behar zaiola zoruari.
- 3. Kalitatezko materialak, kristala nagusi dela, kolore neutroa, eta ingurune eta fatxadetik harmonia.
- 4. Urbanizazioa eta eraginpeko udal elementuak eta zerbitzuak egoera onean mantenduko dira.
- 5. Itxituraren egitura eta jarri beharreko altzarietan publizitatea jartzea debekatzea.

25. artikulua. Mahaiak eta aulkiak eta esparru zedarriturik gabeko egiturak ezartzeko baimenak emateko baldintzak.

- 1. Lekurik ez dutela-eta altzariak lokalaren barruan gorde ezin dituzten establezimenduek baimena eskatu beharko dute horiek bide publikoan pilatzeko, eta horretarako lekua zehaztuko zaie plano batean. Tasaren zenbatekoa dagokion zerga ordenantzaren arabera zehaztuko da.
- 2. Terraza baimen berriak edo baimenen aldaketak abenduan, urtarrilean eta otsailean eskatuko dira, kasu hauetan izan ezik:
 - a) Baimendu daitezkeen ostalaritza establezimendu berriak.
 - b) Irekiera baimenaren titulartasuna aldatzen duten establezimenduak.
 - c) Egitatezko okupazio bat arautzeari lotutakoak, titularrak egoera legeztatu nahi badu eta modu frogagarrian eta eskaera batekin batera egiaztatzen badu ordaindu duela jabego eta erabilera publikoko ondare bat baimenik gabe okupatzeagatik jarritako isuna.

3. Terrazak jartzeko, hiru baimen mota eskatu eta baimendu daitezke, iraupenaren arabera: Denboraldi laburreko baimena, denboraldi luzekoa eta urte osokoa.

Denboraldi laburrerako eta denboraldi luzerako baimena duten establezimenduek terrazaren elementu guztiak kendu beharko dituzte bide publikotik urtero, irailaren 30ean eta urriaren 31n, hurrenez hurren.

Egitura duten terrazek martxan egon beharko dute, baimenak irauten duen bitartean. Terrazen egiturek ezin izango dute bide publikoan egon zerbitzurik eman gabe, 15 egunetik gorako aldi batez.

26. artikulua. Esparru zedarrituko egiturak ezartzeko baimenak emateko baldintzak.

1. Instalazio mota hauek jarri nahi dituzten ostalaritza establezimenduek beren terraza proiektuari buruzko udal irizpidearen alde aurreko kontsulta egin ahal izango dute, eta jarri beharreko instalazioa deskribatzen duen krokis bat aurkeztuko dute, honako hauek adierazita: Okupazioaren, oinplanoaren eta altxaeraren neurriak, eta kalearen sekzioa gutxienez 3 m-ko altueraraino, eta eraginpeko gune publikoarekiko lotura, zerbitzuak eta inguruabarrak, eta jarri nahi den instalazioa deskribatzeko infografia bat edo muntaia bat. Titular bakoitzari udal irizpide teknikoa jakinaraziko zaio, udal argibideen araberrako behin betiko proiektua egin dezan.

2. Proiektu tekniko bat aurkeztuko da, eskala planoak, eta oinplanoaren eta altxaeraren xehetasunak jasoko dituen.

Proiektu horrek memoria bat izango du, eta bertan adieraziko dira, besteak beste: Forma, tamaina, osatzen duten materialak, suarekiko portaera maila adierazita (M-2 gutxienez), sekzioak, euste sistemak, haizearekiko erresistentzia (onar dezakeen gehieneko abiadura adierazita), eta abar. Horrez gain, muntatzeko ziurtagiria eta eraikitze, erosteko edo muntatzeko aurrekontua izango ditu.

3. Eremua okupatu eta instalazioa jartzen hasi aurretik, udal teknikariek bisita bat egingo dute lekua aztertze, eta okupazioaren kokaleku eta azalera zehatzak adieraziko dituzte.

4. Instalazioa amaitu ondoren, udal teknikariek azterketa bat egingo dute, instalazioaren amaieraren jakinarazpenetik 15 eguneko epean, jarduera martxan jartzeko oinarritzko baldintzak eta baldintza espezifikak bete direla egiaztatze. Epe hori udal teknikarien bisitarik gabe amaitu bada, instalazioak onartutzat hartuko da. Obrak egiteko eta instalazioa jartzeko epea udal teknikariek kontrolatuko dute.

5. Baimena eskatu beharko da instalazioetan edozein obra edo aldaketa egin ahal izateko.

27. artikulua. Baimenen indarraldia eta baimenak berritzea.

1. Okupazio aldia urte naturalarekin batera amaituko da, eta denboraldi laburrekoa, denboraldi luzekoa edo urte osokoa izan daiteke, instalatu beharreko terrazen modulu mota guzietarako; hots, mahaiak eta aulkiak dituzten terrazak, esparru zedarriturik gabeko egitura duten terrazak eta esparru zedarrituko egitura duten terrazak.

2. Baimenak indarrean egongo dira urte natural bakoitzerako onartutako denboraldian, eta esan gabe luzatuko dira, 4 urtez, denboraldi bertsuetarako eta baimena lortu ondorengo urteetan, non eta aldeetako batek idatziz jakinarazten ez duen baimena aldatze edo eteteko asmoa, indarraldia amaitzen den egunetik hilabete bateko epean.

3. Baimenaren titularrak fidantza jartzeko eskakizuna bete ezean, baimenak ez du ondoriorik izango.

4. Baimenaren titularrak baimenak iraun bitartean tasaren bat epean ordaintzen ez badu, indarraldia iraungitzea ebatziko da, zehapen txostena hasteari kalte egin gabe.

28. artikulua. Baimenak deuseztatzea.

1. Baimenak kasu hauetan deuseztatu ahal izango dira, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe:

a) Zigorak jartzen direnean.

b) Terrazak okupatutako lekua libre geratzea eskatzen duten interes publikoko gertaerak suertatzen direnean. Horrelakotzat jotzen dira desfileak, azokak, ikuskizunak, kirol ekitaldiak, manifestazioak eta lehentasuna duten antzeko ekitaldiak, obrak egitea, baimendutako aldamioak jartzea, eta larrialdiko egoerak.

2. Baimena indarrean egongo da berriro, hura deuseztatzeko egoerak desagertzen direnean, administrazio ebazpena eman beharrik gabe.

3. Deuseztatzea bide publikoan eginiko obren eraginez gertatzen denean, ebazpen bat emango da tasak proportzioan itzultzeko eskubidearen inguruan.

4. Terraza atxikita dagoen ostalaritza establezimenduaren baimena amaitu edo deuseztatzen bada edo, edozer dela eta, establezimendua ixten bada, terrazaren baimena amaitu edo deuseztatu egingo da.

5. Hasitako zigor espedienteak baimena ez berritzea proposatzen badu eta eteteko zigorra ezartzen badu, baimenak ez dira esan gabe luzatuko.

29. artikulua. Baimenak eskualdatzea.

1. Baimenak eskualda daitezke, indarraldia amaitzeko geratzen den epean.

2. Ostalaritza establezimenduaren titulartasuna eskualdatzen bada eta Udalari jakinarazten bazaio, automatikoki ulertuko da terrazaren baimena ere eskualdatu dela.

3. Ostalaritza establezimenduko jardueraren titulartasunean aldaketa horren berri eman ezean, biak geratuko dira baimenaren titularrari eratorritako erantzukizunen menpe.

II. ATALA. ADMINISTRAZIO EMAKIDAK EMATEKO PROZEDURA

30. artikulua. Eskakerak.

Esparruak ezartzeko administrazio emakidetarako eskariak inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztuko dira, udal erregistroetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 38.4 artikuluan jasotakoetan. Honako informazio hau emango da: Ostalaritza establezimenduaren baimena duen titularraren identifikazio osoa eta okupatu beharreko eremuaren kokalekua.

31. artikulua. Eskakerak izapidetzea.

1. Lehia araubideko izapidetzea Ondare Zerbitzuak emango du argitara.

2. Izapidetzeak bi fase izango ditu: Eskatutako kokapenak izapidetzeko onartzea, ezarri beharreko esparruen baldintza bereziak zehaztuta, eta jabetza edo erabilera publikoko espazioak okupatzeko administrazio emakidak ematea.

32. artikulua. Emateko baldintzak.

1. Instalazio mota hauek jarri nahi dituzten ostalaritza establezimenduek beren terraza proiektuari buruzko udal irizpidearen alde aurreko kontsulta egin ahal izango dute, eta jarri beharreko instalazioa deskribatzen duen krokis bat aurkeztuko dute, honako hauek adierazita: Okupazioaren, oinplanoaren eta altxaeraren neurriak, eraginpeko gunek

publikoarekiko lotura, zerbitzuak eta inguruabarrak, eta jarri nahi den instalazioa deskribatzeko infografia bat edo muntaia bat. Titular bakoitzari udal teknikariaren irizpidea jakinaraziko zaio, udal argibideen arabera behin betiko eraikuntza proiektua egin dezan.

2. Proiektu tekniko bat aurkeztuko da, eskala planoak, eta oinplanoaren eta altxaeraren xehetasunak jasoko dituenak.

Proiektu horrek memoria bat izango du, eta bertan adieraziko dira, besteak beste: Forma, tamaina, osatzen duten materialak, suarekiko portaera maila adierazita (M-2 gutxienez), sekzioak, euste sistemak, haizearekiko erresistentzia (onar dezakeen gehieneko abiadura adierazita), eta abar. Horrez gain, muntatzeko ziurtagiria eta eraikitzeke, erosteko edo muntatzeko aurrekontua izango ditu.

3. Baimena eskatu beharko da instalazioetan edozein obra edo aldaketa egin ahal izateko.

33. artikulua. Kokapenei buruzko irizpide teknikoak.

Honako hauek dira kokapenak onartzeko proposamenean erabili beharreko irizpide teknikoak, bide mota eta gune bakoitzeko aplikazio zehatzak adierazita:

1. Lokalaren jarduera bera. Horren arabera, eskabidea onartzeko mugak ezar daitezke edo eskabidea baztertu daiteke.

2. Gutxienez zenbat oinezko igarotzeko tartea utzi behar den, espaloiarene zabaleraren eta bide horretan ibiltzen diren oinezkoen arabera, esparruak kaleko oinezkoen ibilbide nagusia edo okupatu beharreko eremua oztopa ez dezan.

3. Zirkulazio galtzada hurbilenekoaren ertzetik gorde beharreko tartea, aparkalekuari eta bide segurtasunari eratorriko zaien eraginaren arabera.

4. Ingurunearekin eta inguruko eraikinetako fatxadekin bat etortzea, oinezkoentzat egokitutako eremuak, eraikinen babesa eta guneko eraikinak kontuan hartuta.

5. Esparruen arteko tartea.

6. Suhiltzaile zerbitzuarentzako sarbide librea.

7. Esparruak ezartzeko baimenik ez ematea, lokalaren eta egin nahi den kokapenaren artean galtzada edo ibilgailuentzako bideren bat badago.

34. artikulua. Kokapenak izapidetzeko onartzea.

1. Udal teknikariek proposatuko dute, ezarritako irizpideekin bat etorritik, kokapen berriak izapidetzeko onartzea edo ez onartzea, lehendik daudenak bere hartan uztea edo ez onartzea, eta instalazio guneetan aldaketa zehatzak egitea.

2. Udal teknikariek oinarrizko eta berriazko baldintza zehatzak ezarriko dituzte, adierazitako irizpide teknikoekin bat etorritik, eta izapidetu beharreko eskabideen oinplanoko plano bat egingo dute.

3. Eskatzaile guztiei emango zaie ebazpen proposamenaren eta planoaren berri, espedientearen hamabost egunez ikusgai jarrita.

4. Teknikariek egingo dute alegazioen gaineko txostena.

5. Eskabideak udal ebazpenen bidez ebatziko dira, eman beharreko emakiden kokapena izapidetzeko onartuta edo kokapen berriak ez onartuta. Ebazpenean eskatuko da hilabeteko epean teknikari gaitu batek sinaturiko Gauzatze Proiektu bat aurkeztu dadila, eta interesdunei ohartaraziko zaie dokumentazio hori aurkezten ez badute artxibatu egingo dela eskabidea.

6. Udal ebazpen batean irizpide zehatzak emango dira eremu jakin batzuetan baimenak emateko, segurtasun neurriak eta oinezkoen joan-etorriaren jarioa direla-eta (hala nola azokak, zinema irteerak, ikastetxeak edo osasun ekipamenduak, edo jendearen joan-etorria duten beste batzuk) babes berezia merezi badute edo saturazioa dela-eta antolamendu berezia behar badute, honako muga hauekin:

- a) Baimendu beharreko terrazen gehieneko azalera, kokapena eta gehieneko azalera zehaztea, eta horien banaketa egitea establezimenduen artean.
- b) Bete beharreko ezaugarri teknikoak, estetikoak edo bestelakoak zehaztea.
- c) Zer elementu mota ezarri ahalko diren mugatzea.
- d) Altzariak mota normalizatu batera edo batzuetara mugatzea.
- e) Nahitaezko txostenak igor daitezela eskatzea.

35. artikulua. Emateari buruzko irizpide teknikoak.

Administrazio emakidak emateko proposamenean erabili beharreko irizpide teknikoak honako hauek dira:

- 1. Ezarriko diren esparruak guztiz desmuntagarriak izatearen irizpen teknikoa.
- 2. Zoruaren esparruari eusteko modua eremuaren, bide motaren eta gainerako ezaugarri teknikoen arabera izatea, kontuan hartuta jarri beharreko egitura euskarririk gabe atxiki behar zaiola zoruari.
- 3. Kalitatezko materialak, kristala nagusi dela, kolore neutroa, eta ingurune eta fatxadetik harmonia.
- 4. Urbanizazioa eta eraginpeko udal elementuak eta zerbitzuak egoera onean mantenduko dira.
- 5. Itxituraren egituraren eta jarri beharreko altzarietan publizitatea jartzea debekatzea.

36. artikulua. Administrazio emakidak ematea.

- 1. Udal teknikariek eskabideen ebazpena jakinarazi eta proposatuko dute.
- 2. Udal ebazpenean, administrazio emakidak ematea edo ezestea proposatuko zaio organo eskudunari.
- 3. Administrazio emakidaren titularrak ez baditu betetzen fidantza jartzeko eskakizunak, emakidak ez du ondorioz izango.

37. artikulua. Obrak egitea.

- 1. Eremua okupatu aurretik eta esparruan instalazioa jarri edo obrak egiten hasi aurretik, udal teknikariek bisita bat egingo dute lekua aztertzeko, eta okupazioaren kokapen eta azalera zehatzak adieraziko dituzte.
- 2. Esparruko instalazioa amaitu ondoren, udal teknikariek azterketa bat egingo dute, esparruan jardura martxan jartzeko oinarritzko baldintzak eta baldintza espezifikoak bete direla egiaztatzeko. Esparruetan obrak egiteko eta instalazioa jartzeko epea udal teknikariek kontrolatuko dute.

38. artikulua. Esparruen indarraldia eta esparruak berritzea.

- 1. Esparruen administrazio emakidak bost urterako izango dira, ematen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, epe hori amaituta, iraupen bereko epealdietan luzatu ahalko dira.

2. Emakiden titulartasuna eskualdatu bada, eman diren egunetik aurrera kalkulatu da indarraldia, eta inoiz ez eskualdatu diren egunetik aurrera.

3. Esparruak ez dira desmuntatu beharko emakidaren indarraldiko azken urtean, esanbidezko ebazpena eman arte.

Ebazpenaren oinarria Esparruak Mantentzeko eta Berritzeko Planaren ondorioak izango dira, eta berekin ekarriko du beste eskubide batzuk ematea, baldintzak eskatzea edo administrazio emakida azkentzea.

39. artikulua. Administrazio emakidak deuseztatzea.

1. Administrazio emakidak deuseztatu ahalko dira, zehapenak jartzen direnean ez ezik, okupatutako eremua libre geratzea eskatzen duten interes publikoko gertaerak suertatzen direnean ere. Horrelakotzat jotzen dira desfileak, azokak, ikuskizunak, kirol ekitaldiak, manifestazioak eta lehentasuna duten antzeko ekitaldiak, obrak egitea, baimendutako aldarmioak jartzea, eta larrialdiko egoerak. Kasu horietan, ebazpen bat emango da tasak proportzioan itzultzeko eskubidearen eta kalte-ordainerako eskubidearen inguruan. Emakida indarrean egongo da berriro, hura deuseztatzeko egoerak desagertzen direnean, administrazio ebazpena eman beharrik gabe.

2. Esparrua atxikita dagoen ostalaritzako establezimenduaren lizentzia amaitu edo deuseztatzen bada edo, edozer dela eta, establezimendua ixten bada, administrazio emakida amaitu edo deuseztatu egingo da.

3. Emakidak ez dira berrituko, emakida deuseztatuz zehatzea proposatu badute uda teknikariek zehatzeko espedientean.

40. artikulua. Administrazio emakidak eskualdatzea.

1. Administrazio emakidak eskualda daitezke, indarraldia amaitzeko geratzen den epean.

2. Ostalaritza establezimenduaren lizentziaren titulartasuna eskualdatzen bada eta Udalari jakinarazten bazaio, administrazio emakida ere eskualdatu ahalko da.

3. Ostalaritza establezimenduko jardueraren titulartasunean izandako aldaketa horren berri eman ezean, biak geratuko dira baimenaren titularrari eratorritako erantzukizunen menpe.

V. TITULUA

EGINBEHARRAK

I. KAPITULUA. BAIMENEN TITULARRENAK

41. artikulua. Jarduerari buruzko betebeharrak.

1. Baimendutako eremuan planoan adierazitako eta baimendutako elementuak eta modulu mota eta kopurua jartzea.

2. Ostalaritza establezimenduak baimendutako edariak eta janariak zerbitzatzea, berariazko ebazpen batez bidez janariak manipulatzeko zerbitzua mugatzen denean izan ezik.

3. Herritarren eta udal zerbitzuen eskura eta ikusteko moduan edukitzea baimena eta baimenari dagokion planoak.

4. Instalazioari jarritako ordutegia betetzea.

5. Terrazen altzariak kentzeko betebeharra betetzea, altzari horiek bide publikoan biltzeko baimena ematen denean izan ezik. Emateko epea amaitzean, itxiturak kentzeko betebeharra betetzea.
 6. Okupatutako eremua, altzariak eta jarritako egitura egoera egokian edukitzea garbitasunari, higieneari eta mantentzeari dagokienez, erratza pasatuta eta garbiketak eginda.
 7. Baimendutako ordutegia amaitzean, instalaziotik ateratzen diren pertsonen gaineko erantzukizuna hartzea.
 8. Instalatzeko eta eraberritzeko obrarik ez egitea, udal baimenik izan gabe.
 9. Kontu korrante bat ematea, okupazioari dagozkion tasak eta fidantza ordaintzeko.
 10. Jardueraren baja, eskualdatzea edo etetea jakinaraztea, 7 eguneko epean.
 11. Instalazio bakoitzean beharrezkoak diren lur azpiko hartuneen altzariei buruzko udal baldintzak betetzea, eta errespetatzea udal zerbitzuek tapakiak, erregistroak eta ur-hartuneak erabiltzeko eta manipulatzeko egin beharreko lanak.
 12. Udalari baimena ematea instalazioaren zaintza eta mantentze egoera azter dezan eta okupazioaren baldintzak betetzeko egin beharreko konponketak edo bestelako ekintzak adieraz ditzan.
 13. Instalazioak berak edo jarduerak baimendutako eremuan egindako kalte guztien erantzukizunak bere gain hartzea, eta horiek konpontzea bere kontura, udal teknikarien zaintzapean.
 14. Onartzea utzitako fidantza adierazitako edozein betebeharren ez-betetzeari erantzuteko erabiliko dela eta Ordenantza honek araututako arau-hausteen erantzulea izango dela.
 15. Jardueraren arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguruia sinatuta edukitzea eta Udalak eskatuz gero egiaztatzea.
 16. Interes publikoa dela eta, eskatzen den unean nork bere terrazaren egitura desmuntatzea, hilabete baino gutxiagoko epean. Egoera horrek hilabeteko epea gainditzen badu, Udalak behar besteko denboraz etengo du baimena.
 17. Interes publikoagatik baimenaren ezeztatzea edozein unetan onartzea, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izan gabe, egoera hauetan: Gerora onartutako baldintza orokorrekin bateraezina izatea, jabego eta erabilera publikoko ondarean kalteak egitea, interes publikoko jarduerak eragozteko edo erabilera orokorrari kalte egitea.
 18. Eskubidea amaitzen den egunetik hamabost eguneko epean, okupatutako eremuaren titularraren esku eta libre uztea, eta, hondatuta egonez gero, kaltetutako urbanizazioa konpontzea.
 19. Emandako eskubidea amaitzean, instalazioak kentzea edo eraistea.
42. artikulua. Betebehar ekonomikoak.
1. Terrazak eta itxiturak jartzeagatik eta beste eremu batean elementu horietako batzuk biltzeko baimena edukitzeagatik, jabego eta erabilera publikoko ondarearen erabilera bereziari dagozkion tasak ordaintzea.
 2. Jabego eta erabilera publikoko eremua okupatzeagatik dagokion fidantza ordaintzea. Okupazioaren urteko tasa zenbatekoaren % 25 izango da, eta, edonola ere, 100 €-koa baimenetan, eta 300 €-koa, berriz, eremu zedarrituko egitura duten terrazaren baimenetan.

Tasarekin batera ordainduko da, edo modu independentean, okupatutako eremua jabetza pribatukoa izanik, tasa ordaindu behar ez denean.

a) Fidantza eratuko da baldintzak, betebeharrak eta ezarritako zigorrek betetzeko berme gisa.

b) Eremuaren erabilerari, konponketari, kalteen ordainari, tasen eta ezarritako zigorraren ordainketari erantzungo die.

3. Fidantzaren beste zenbateko bat ordaintzea, haren zati bat edo osorik erabili bada.

4. Hartutako betebeharren eraginez sortutako gastuak ordaintzea, eta Udalari eta hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea.

5. Udalari sortutako gastuak fidantzaren zenbatekoa baino handiagoak izanez gero eta borondatezko epean ordaindu ezean, premiamendu bidez eskatuko da falta den kopurua.

6. Ordenantza honetan xedatu ez direnetarako, zergak eta zuzenbide publikoko bestelako sarrerak biltzeari buruzko Ordenantza aplikatuko da.

7. Udal langileek baimenik ez duen edo Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez duen okupaziorik hautemanez gero, zigorrek jartzeko aukera alde batera utzita, jabego eta erabilera publikoko ondarearen erabilerari dagozkion tasak ordaintzeko eskatuko dute.

II. KAPITULUA. -UDALARENAK

43. artikulua. Baimenen titularrekiko betebeharrak.

1. Baimenaren titularren esku jarriko dira okupatu beharreko eremuak, emateko jakinarazpena egin eta hurrengo egunean.

2. Espedientean entzunaldi izapidea ematea, eta eskatzaile bakoitzari hartutako erabakiak jakinaraztea.

3. Bide publikoaren okupazioa uzteari dagokion zenbateko proportzionala ordaintzea, baimena aurretik amaitzen bada.

4. Ikuskapena egitea eta egiaztatzea instalazioa bat datorrela aurkeztutako proiektu eta dokumentazioarekin eta emateko baldintzekin.

5. Ikuskapen Plana egitea, eta haren aurreikuspenak betetzea, ordutegia betetzeari, baimendutako azalerari eta onartutako maila akustikoari dagokienez.

6. Denboraldi bakoitzean, egiaztatzea terrazetan baimendutako mahaiak, aulkiak eta gainerako moduluak kendu direla, guztia lokalaren barruan bildu dela, eskubidea amaitzean instalazioak kendu direla espazioa hutsik utzita, eta okupatutako eremuaren urbanizazioa egoera onean geratu dela.

7. Mantentze Plan bat egitea eta martxan jartzea.

8. Okupazioaren gehieneko epea amaitzean fidantzaren zenbatekoa itzultzea, okupatutako eremuaren instalazioa, urbanizazioa eta eraginpeko udal zerbitzuak egoera onean daudela egiaztatu ondoren.

44. artikulua. Herritarrekiko betebeharrak.

1. Udalak, baimenak ematean, oinezkoen joan-etorrirako erabilera komun orokorraren lehentasun irizpidea errespetatuko du, jabego eta erabilera publikoko eremuetan.

2. Udalak eskatuko du baimenek kutsadura akustikoaren arloko ingurumen babeserako xedapenak betetzeko eta errespetatzeko.

VI. TITULUA

MANTENTZE PLANA

45. artikulua. Instalazioen Mantentze eta Berritze Plana.

1. Esparru zedarrituko egitura duten terrazan Mantentze eta Berritze Plana egingo da, baimenen indarraldiaren laugarren urtearen hasieran martxan jartzeko.
2. Mantentze Planean, udal teknikariek udalerrian jarritako terrazetara egin beharreko bisiten erregimena ezarriko da, altzariaren, instalazioen eta jabego eta erabilera publikoko ondarearen egoera egiaztatze eta baimenen urteko berritzea izapidetzean baldintzak mantendu edo jarri behar diren zehazteko.
3. Bisita horien ondoren, teknikariek baimendutako okupazio guztien egoerari buruzko txosten bat egingo dute.
4. Baimenen titularrei beren instalazioei buruzko txostenaren ondorioak jakinaraziko zaizkie.
5. Baimenen titularrek eta terrazan instalazioaren eraginpeko pertsonak edo saltokiek planaren gaineko iradokizunak egin ahal izango dituzte.

VII. TITULUA

ZIGOR ERREGIMENA

46. artikulua. Ikuskaritza.

1. Ordenantza hau betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizuna Udaltzaingoari eta udal lurren erabilerari lotutako ondarea kudeatzeko ardura duen Udal Zerbitzuari dagokie.
2. Udaltzaingoak eta edozein pertsonak, HAAJAPEn 70. artikuluen xedapenak eta egiaztapena egiteko datuak jasotzen dituen salaketa idatzi baten bidez, salatu ahal izango dituzte Udalaren aurrean Ordenantzaren edo baimenaren baldintzen urraketak.
3. Partikularrek jarritako salaketek, egiaztatu ondoren, kautelazko neurriak ezartzea eta zigor espediente bat hastea ekar dezakete.

47. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, Ordenantza honetan araututako xedapenak eta baimenen titularren betebeharrak ez betetzeagatik.
2. Honako kautelazko neurri hauek jar daitezke: Terrazetako aulkiak eta mahaiak kentzea, bide publikoan jarritako elementuak zigilatzea, eta baimena aldi baterako etetea, zigor espediente hasiko den ala ez erabaki arte.
3. Baimena amaitu dela edo arau-hauste larri edo oso larri bat egin dela egiaztatuz gero, zigor prozeduraren izapidea hastearekin batera, Udaltzaingoari ebazpen baten bidez agindu ahal izango zaio terrazako mahaiak eta aulkiak kentzeko edo instalazioak zigilatze, bertan jarritako mahaiak eta aulkiak kenduta.
4. Kautelazko neurria duen ebazpena Udaltzaingoari jakinaraziko zaio, bete dezan, interesduna entzuteko hiru eguneko epea igaro ondoren alegazioak egiten ez badira edo egindako alegazioak onartzen ez badira.
5. Instalazioaren titularrak ordainduko ditu hartutako kautelazko neurriek, legezkotasuna berrezartzeak eta sortutako kalte-galerek eragindako gastuak.

48. artikulua. Arau-haustea.

1. Arau-haustea baimena emateko udal ebazpenaren baldintzen edo, oro har, Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako ekintzak edo ez-egiteak dira.
2. Arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.
3. Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:
 - a) Irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, ordubetera arte.
 - b) Eremu handiagoa okupatzea, planoan baimendutakoak baino modulu gehiago jartzearen ondorioz.
 - c) Moduluak planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
 - d) Moduluak planoan baimendutako kokalekutik kanpo biltzea.
 - e) Baimena eta baimenaren planoak ikusteko moduan ez edukitzea.
 - f) Terrazako altzariak adierazitako espaziotik kanpo biltzea.
 - g) Egunero modu egokian okupazio esparrua ez garbitzea.
 - h) Larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren Ordenantzaren beste ez-betetze guztiak, instalatu beharreko elementuen baldintza orokorreari, espezifikoari eta ezaugarriei dagokienez, asmo txarrik gabe edo ez-betetzea errepikatu gabe.
4. Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:
 - a) Terrazan baimenik gabeko elementuak jartzea.
 - b) Baimendutakoak baino modulu gehiago jartzean behar baino eremu handiagoa okupatzea eta horren ondorioz arazoak sortzea, udal zerbitzuen segurtasun eta irisgarritasunerako.
 - c) Irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, ordubete edo gehiago luzatuta.
 - d) Ordutegitik kanpo bezeroei terraza erabiltzen uztea eta hura ez erabiltzeko beharrezkoak diren bitartekoak ez jartzea.
 - e) Baimendutako proiektua aldatuko duten obrak egitea baimenik gabe.
 - f) Konpontzeko, egokitzeko edo jartzeko obrak ez hastea finkatutako epean.
 - g) Hiru arau-hauste arin egitea urtebetean.
5. Honako hauek izango dira arau-hauste oso larriak:
 - a) Terraza jartzea, baimena eskatu eta eskuratu gabe.
 - b) Terraza edo itxitura erabiltzea baimenik gabeko jardura bat egiteko.
 - c) Berariaz debekatutako moduluak jartzea.
 - d) Hiri altzariak, eserlekuak, paperontziak, farolak kentzea edo mugitzea, udal baimenik izan gabe.
 - e) Ez betetzea baimena ez edukitzeagatik instalazioa kentzeko agindua edo finkatutako baldintzekin bat ez datozen elementuak kentzeko agindua.
 - f) Jabego eta erabilera publikoko ondarean edo aldameneko ondareetan kalte konponezinak egiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.
 - g) Trafikoa, urbanizazioa, interes orokorra edo udal interesa direla eta, terraza desmuntatzeko eta kentzeko agindua eta epea ez betetzea.

- h) Emandako eskubidea amaitzean, terraza edo itxitura desegiteko eta kentzeko eta okupatutako eremua hutsik uzteko agindua eta epea ez betetzea.
- i) Eskatutako epean ez ordaintzea okupazio tasak, fidantza edo haren eraketa berria.
- j) Baimena ostalaritza establezimendutik bereiz errentan ematea, lagatzea edo eskualdatzea.
- k) Hiru arau-hauste larri egitea, urtebetean.

6. Ordenantza honetan araututako arau-hauste oso larriak hiru urtera geratuko dira baliorik gabe, larriak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

49. artikulua. Zigor prozedura.

1. Zigor espedienteak Udaltzaingoaren aktak ikusirik hasiko dira, administrazioak bere kabuz edo partikularren salaketagatik eginak, eta tasaren edo fidantzaren ez ordaintzearen udal txostenarekin batera.
2. Udaltzaingoaren aktak eta ez ordaintzeen txostenak aztertu egingo dira arau-hausteen kalifikazioa egiteko eta, egoki denean, zigor espedientea hasteko proposamena.
3. Zigor espedientea gertakarien zerrendarekin hasiko da, baita arau-haustearen kalifikazioarekin eta dagokion zigor proposamenarekin ere, kontuan hartuz hura mailakatzeko dauden irizpideak.
4. Ebazpen proposamena arau-haustearen kalifikazioarekin eta zigorren ezarpenarekin emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie, hamabost eguneko entzunaldi izapidetan alegazioak egin eta egoki irizten dituzten dokumentuak aurkez ditzaten.
5. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, alegazioei emandako erantzunarekin eta zigorren ezarpenarekin, eta berraztertze errekurtsua eskainiko zaie. Ebazpena irimokatu behitzen denean bide administratiboan, zigor ebazpena betearaztekoa izango da.

50. artikulua. Mailaketa irizpideak.

Zigorren zenbatekoa ezartzeko, baimenak deuseztatze, baliogabetze eta iraungitze honako hauek hartuko dira kontuan: Nahita egin ote diren, arau-haustea zenbat denboraz iraun duen, unean unekoa den, noizean behingoa edo errepikatu egin ote den, ez betetzea gertatu zenean zegoen edukiera, egun berezietan gertatu ote zen, tokiko festetan adibidez, eta eragindako kalteen ezaugarriak.

51. artikulua. Zigorrak.

1. Zigorrak izan litezke ohartarazpen hutsa, diruzko zigor bat, fidantza bahitzea, baimena deuseztatzea eta baliogabetzea, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, eta baimena iraungitzea eta instalazioa kenaraztea.
2. Sailkatutako arau-haustea honela zigortuko dira:
 - a) Arau-hauste arin bakoitzagatik, ohartarazpen hutsa edo 50 eta 200 € bitarteko isuna.
 - b) Arau-hauste larri bakoitzagatik, baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 400 € bitarteko isuna.
 - c) Arau-hauste oso larri bakoitzagatik, baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hiru hilabetera arte, eta egoki denean, 401 € eta 1.000 € bitarteko isuna.

3. Zigortutako arau-hausteak behin eta berriz egiteak isunaren mailaketa hau ekarriko du, eta, gainera, baimena deuseztatzea erabakiko da, eta bide publikotik instalazioa kenaraztea, edo instalazioa zigilatzea, honako aldi hauengatik:

a) Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago egiten badira, bigarrena 200 euroan mailakatuko da. Hurrengoa, ordea, larritzat joko da eta baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 400 € bitarteko isuna.

b) Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago egiten badira, bigarrena eta 400 euroan mailakatuko da. Hurrengoa oso larritzat joko da eta baimena deuseztatzea eta indargabetzea erabakiko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioak zigilatzearekin batera, hiru hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta, eta egoki denean, 401 € eta 1.000 € bitarteko isuna.

c) Urtean bi arau-hauste oso larri edo gehiago egiten badira, bigarrena eta hurrengo isunak 1.000 euroan mailakatuko dira, eta baimena deuseztatzea erabakiko da, eta berehalakoan instalazioa kenaraztea, edo instalazioak berehalakoan zigilatzea, bost hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta.

4. Ordenantza honetan araututako zigorrei dagokienez, oso hutsegite larriengatik ezarritakoak hiru urtera baliogabetuko dira, hutsegite larriengatik bi urtera, eta hutsegite arinengatik sei hilabetera, zigorra ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

VIII. TITULUA

BAIMENAK IRAUNGITZEA

52. artikulua. Baimenak iraungitzea.

Baimenak indargabetuko dira honako arrazoiak direla eta:

1. Titularraren heriotza edo ezgaitasuna, eta haren nortasun juridikoa iraungitzea.

2. Titularrak uko egitea.

3. Eskualdatze kasuetan baimenik ez egotea.

4. Jardueran edo establezimenduaren baimenean baja eman delako.

5. Indarraldiaren mugaeguna betetzea.

6. Udalak baliogabetzea, kalte-ordainik izateko eskubiderik gabe:

a) Interes publikoa tartean denean, ondoren onartutako baldintzekin bateraezinak direnean, kalteak eragiten dituztenean okupatutako eremuan, interes publiko handiagoa duten jardueretarako erabilera eragozten dutenean eta balioztatzeko irizpide berriak hartzen direnean.

b) Tasa ez ordaintzea baimenak ezarritako borondatezko epean, edo isuna, baimenaren baldintzak, ordenantza edo aplikagarria den gainerako araudia ez betetzeagatik.

7. Udalak deuseztatzen dituztenean oker emanak izan badira, eragin dituzten kalte-galerak ordaindu ondoren, egindako exekuzio proiektuaren zenbatekoaren eta haren amortizazioaren gain kalkulatuak, ustiatzeko gelditzen den okupazio denbora ikusirik, eta jabetza eta erabilera publikoko ondasuna jatorrizko egoerara itzuli ondoren.

8. Adostasunez.

9. Baimena eman eta ondoren, titularrak kontratatzeko debekuren bat baldin badu.

53. artikulua. Instalazioak desmuntatzea.

1. Jabetza eta erabilera publikoko gune baten okupazioa baimenik gabeko instalazio batekin, baimenik gabeko elementuekin, baimendutako elementu baino gehiagorekin edo behin betiko eten edo indargabetu den baimen batekin egin dela egiaztatu ondoren, eta zigor espedientearen tramiteak hasteko eragozpen izan gabe, establezimenduaren arduradunari aginduko zaio berehalakoan desmunta eta ken dezala instalazioa edo baimendu gabeko elementuak, eta ohartaraziko zaio epea agortu ondoren haren konturako betearazte subsidiarioari ekingo zaiola.

Betearaztearen kostua likidatu egingo da okupazio tasarekin eta dagokion arau-hauste larri edo oso larriaren zenbatekoarekin. Kendu diren elementuak udal eremuren batean utzi behar badira, kostuaren zenbatekoa finkatuko da eremua husten den arte.

2. Indarraldia amaitu zaion instalazio batekin jabetza eta erabilera publikoko eremu baten okupazioa egin dela egiaztatu ondoren, establezimenduaren arduradunari aginduko zaio terraza desmuntatu eta kentzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Ordenantza hau indarrean sartzen denean izapidetze bidean dauden baimenek xedapen hauetara egokitu beharko dute, tramitazioari eta dokumentazioari dagokienez.

Bigarrena. Ordenantza hau indarrean sartzean administrazio emakida duten esparru iraunkor edo itxiek jarduerarekin jarraitu ahalko dute eta bide publikoan egon ahalko dira, harik eta 2014. urtean emakidaren epea amaitzen zaien arte.

Hirugarrena. Administrazio emakiden titularrek esparrua edo ordenantza honetan araututako beste terraza mota bat ezartzeko administrazio emakida berria eskatu ahal izango dute, indarraldiaren epea igaro baino 3 hilabete lehenago.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza honetako xedapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean, eta Donostiako udalerrian aplikatuko dira.